



ERAGIKETA EKONOMIKOEN ERREGISTRO
LIBURUA

PROBA ESPARRUA – ENPRESA GARATZAILEAK

AURKIBIDEA

1 SARRERA	3
2 BERTSIOEN KONTROLA	4
2.1 Hasierako 1.0.0 bertsioa.	4
2.2 Bertsioa 1.0.1	4
2.3 Bertsioa 1.0.2	4
2.4 Bertsioa 1.0.3	4
2.5 Bertsioa 1.0.4	4
3 INGURUARI BURUZKO OHARRAK	5
3.1 URLa.....	5
3.2 Proba ziurtagiriak.....	5
3.3 Sinadura	5
3.4 Proba lizentzia.....	5
4 PROBEN DATU JOKOEN ESKAERA	6
4.1 Eskaera.....	6
5 KAPITULUA/AZPIKAPITULUA ESKURAGARRITASUNA	7
5.1 140 eredia	7
5.2 240 eredia	7
6 KONTSULTAK ETA GORABEHERAK ARTATZEA	9

1 SARRERA

Dakizuen bezala, Batuzen sustatutako borondatezko aldia 2022ko urtarrilaren 1ean hasiko da sistemari atxikitzen zaizkien pertsona eta erakundeentzat. Ondorioz, data horretan irekiko da Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburuaren (EEEL) esparru erreal, Foru Ogasunaren web aplikaziorako nahiz Bizkaiko Foru Aldundiko sarrera masiboen zerbitzuaren bidez fitxategi informatikoak automatikoki partekatzeko.

Azaro erdialdetik, Bizkaiko Foru Aldundiak proba esparru berri bat gaituko du. Modu horretan, hala nahi duten enpresek beren sistema teknologikoak prestatu ahal izango dituzte EEEL bete ahal izateko bidalketa masiboen sistemaren bitartez. Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako sarreren zerbitzuaren plataforma erabili ahal izango dute horretarako.

2 BERTSIOEN KONTROLA

2.1 Hasierako 1.0.0 bertsioa.

Dokumentua sortzea.

2.2 Bertsioa 1.0.1

Ezabatu egin da autonomo zigilua ziurtagiri mota ezin baita ordezkartzan erabili.

Gehitu egin da 6. kapituluaren (Hornidurak eta ordejarriak) erabilgarritasuna.

2.3 Bertsioa 1.0.2

Proba esparrua gaitu da benetako datuen erabilera ahalbidetzeko.

2.4 Bertsioa 1.0.3

Eskuragarri daude 140 ereduaren azpikapitulu berriak, zehazki, 7. Kapitulukoak – Tributu-eragina duen bestelako informazioa.

2.5 Bertsioa 1.0.4

Eskuragarri daude 240 ereduaren azpikapitulu berriak, zehazki, 6. Kapitulukoak – Tributu-eragina duen bestelako informazioa.

3 INGURUARI BURUZKO OHARRAK

Proba esparrua 2021eko azaro erdialdetik aurrera egongo da eskuragarri.

Beharrezkotzat jotzen diren proba guztiak egin ahalko dira. Eremu horretan jasotzen diren datuak probarako datutzat joko dira eskusiboki eta **ez dute eraginik izango zerga-esparruan**.

Informazioa *EEELren bidalketa masiboari eta EEELren baliozkotzei eta akatsei buruzko zehaztapenen* dokumentuetan hurrenez hurren argitaratutako zehaztapenak eta baliozkotzeak aintzat hartuz bidali behar da, Batuz webguneko [Dokumentazio teknikoa](#) atalean.

EEELren proba esparruan erabili daitezke proben datu jokoak, baita Batuzi borondatez atxikitzeo jakinarazpena egin duten zergadunen autentifikazioko eta identifikazioko (ziurtagiriak eta interesduna) benetako datuak ere, nahiz eta horrek, momentuz, ondoriorik ez sortu.

3.1 URLa

Alta, aldaketa eta ezeztatzeko proba esparruko sarrerren zerbitzuaren URLa honako hau da:

- <https://pruesarrerak.bizkaia.eus/N3B4000M/aurkezpena>

Kontsultetarako proba esparruko sarrerren zerbitzuaren URLa honako hau da:

- <https://pruesarrerak.bizkaia.eus/N3B4001M/kontsulta>

3.2 Proba ziurtagiriak

Proba ziurtagiriak emango dira Batuz postontziak emandako datu jokoetan erabiltzeko.

Proba ziurtagiriak Batuz webgunean deskarga daitezke hurrengo atalean: [Dokumentazio teknikoa](#).

Hurrengo ziurtagiri motak definituko dira:

- Pertsona fisikoaren ziurtagiria.
- Erakundeko ordezkariaren ziurtagiria.
- Enpresa/erakundearen zigilua.
- Gailuaren ziurtagiria.

3.3 Sinadura

Bidalketa bakoitzean txertatutako **lehenengo 10 TBAI fitxategiei dagozkien sinadurak soilik balioztatuko dira** proba esparru horretan.

3.4 Proba lizentzia.

Proba esparru honetan, benetako lizentziez gain, hurrengo datuak dituen probak fakturatzeko softwarea erabili ahal izango da:

- TBAI lizentzia: TBAIBI00000000PRUEBA
- Erakunde garatzailearen IFZ: A99800005
- Izena: SOFTWARE GARANTE TICKETBAI PRUEBA
- Bertsioa: 1.0

4 PROBEN DATU JOKOEN ESKAERA.

Esparru honetan probak egin ahal izateko probako datu jokoetan (fikziozkoak), enpresa garatzaileak eskaera bat bidali beharko du Batuz kontsulta teknikoak egiteko postontziaren bidez.

Eskaera jaso ostean, fikziozko interesdunen datuak sortuko dira (bat 140 ereduarekin erabiltzeko eta beste 240 ereduarekin erabiltzeko). Horiekin enpresa garatzaileak probak egin ahal izango ditu, eta posta elektronikoko bidez bidaliko dira.

4.1 Eskaera

Eskaria egiteko, mezu elektronikoko bat bidali beharko da helbide honetara:

batuz.programak@bizkaia.eus

Hauetako mezu horretan bidali beharreko datuak:

- Gaia: **EEEL – Proba esparrua – Datu jokoaren eskaera.**
- Mezuaren edukian:
 - Enpresa garatzailearen datuak:
 - Sozietatearen izena.
 - Harremanetarako pertsonaren datuak:
 - Izen-deiturak.
 - Helbide elektronikoa.
 - Telefono-zenbakia.

Erantzuteko mezuan interesdunen datuak bidaliko dira eta enpresa garatzaileak probak egiteko erabili ahaliko ditu:

- Mezuaren edukian:
 - Interesdunaren datuak 140 ereduarentzat:
 - IFZ.
 - Izen-deiturak.
 - Interesdunaren datuak 240 ereduarentzat:
 - IFZ.
 - Sozietatearen izena.

5 KAPITULUA/AZPIKAPITULUA ESKURAGARRITASUNA

5.1 140 eredua

Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburua (pertsona fisikoak):

Kapitulua	Azpikapitulua
1 – Egindako fakturak eta diru-sarrerak	1.1 – Software bermatzailearekin igorritako fakturadun diru-sarrerak
	1.2 – Software bermatzaile gabe igorritako fakturadun diru-sarrerak
	1.3 – Fakturarik gabeko diru-sarrerak
2 – Jasotako gastuak eta fakturak	2.1 – Gastuak fakturarekin
	2.2 – Gastuak fakturarik gabe
3 – Jarduerari atxikitako ondasunak eta inbertsio-ondasunak	3.1 – Jarduerari atxikitako ondasunen eta inbertsio-ondasunen altak
	3.2 – Jarduerari atxikitako ondasunen eta inbertsio-ondasunen hobekuntza
	3.3 – Jarduerari atxikitako ondasunen eta inbertsio-ondasunen bajak
	3.4 – Inbertsio-ondasunen urteko erregularizazioa
4 – Erkidegoaren barneko zenbait eragiketa	4.1 – Erkidegoaren barruko transferentziak, adituen txostenak eta bestelako lanak
	4.2 – Kontsignako ondasunen salmentak
5 – Kutxa irizpidea / Kobrantzen eta ordainketen irizpidea	5.1 – Kobrantzak
	5.2 – Ordainketak
6 – Hornidurak eta ordejarriak	
7 – Tributu-eragina duen bestelako informazioa	7.1 – Izakinen aldaketa
	7.2 – Negozio-lokalen errentamenduak
	7.3 – BEZari lotutako higiezin-eskualdaketak
	7.4 – Eskudirutan emandako 6.000 eurotik gorako zenbatekoak
8 – Ondasunen multzoak	8.1 - Ondasun-elkartzeen alta
	8.2 – Ondasunen multzoen bajak

5.2 240 eredua

Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburua (pertsona juridikoak):

Kapitulua	Azpikapitulua
1 – Igorritako fakturak	1.1 – Software bermatzailearekin egindako fakturak
	1.2 – Software bermatzailerik gabe egindako fakturak
2 – Jasotako fakturak	
3 – Inbertsio ondasunak	
4 – Erkidegoaren barneko zenbait eragiketa	4.1 – Erkidegoaren barruko transferentziak, adituen txostenak eta bestelako lanak
	4.2 – Kontsignako ondasunen salmentak
5 – Kutxa irizpidea	5.1 – Kobrantzak
	5.2 – Ordainketak
6 – Tributu-eragina duen bestelako informazioa	6.1 – Eskudirutan emandako 6.000 eurotik gorako zenbatekoak
	6.2 – Aseguru-eragiketak
	6.3 – Bidaia-agentziak

6 KONTSULTAK ETA GORABEHERAK ARTATZEA

Probekin lotutako edozein kontsulta edo gorabehera izanez gero, honako postontzi hau erabilgarri dago:

batuz.programak@bizkaia.eus

Arreta eman ahal izateko honako datu hauek eman behar dira:

- **Gaian “EEEL – Proba Esparrua – Enpresaren izena”** eta “Kontsulta edo akatsa” adierazi behar da.
- Mezuaren edukian:
 - Interesdunaren IFZ.
 - Probaren data eta ordua.
 - Bidalketa egiten den IP publikoa.
 - Bidalketa egin ostean erantzunaren goiburuan jasotako parametroak:
 - eus-bizkaia-n3-tipo-respuesta.
 - **eus-bizkaia-n3-identificativo.**
 - eus-bizkaia-n3-codigo-respuesta.
- Erantsitako fitxategiak, segurtasun arrazoiak tarteko, honako baldintza hauek bete behar ditu:
 - Proban erabilitako fitxategia bidali behar da, eta hori GZIP motakoa izan behar da.
 - Izena beti hasi behar da LROE hizkiekin.

Adibidea: “**EEEL_140_1_1.gz**”.